

Arteak eta Kulturak orokorrean bat egingo dute aurten ere Emakumearen Nazioarteko Egunarekin

Martxoak 4, eguna:

18:30 Gastronomía museoan MUGARIK GABE "Bolibiako emakumeen borroka" aurkezten digu. Solastiarrek antolatuta.

Martxoak 5, barikua:

19:00 Lan Heziketako udal ikastetxean **ANTZERKIA "ELLAS BAILAN SOLAS"** ADIN GUZTIETARAKO.

Bi atso aingerutxo gurpil-aulki automatikoz, bizi ziren euren egoitzatik ihes egin dute eta hiriko kaleetan zehar dabiltza, harrituta. Itxuraz ahulekoak dira ere, heltzen diren lekura kristorena liatzen dute; libre sentitzeagatik euren adinerako egitanda pentsaezinei ekingo diete geure begien aurrean. Ametsak izanez jarraitzen duten nagusi zorionsuekiko omenaldia, presu izanik mundua konkistatzeko, arroak, bizitza gozatzu mantso. PIKOR TEATRO.

Martxoak 8 astelehena:

13:00 Ruperto Urkijo estatuaren ondoan **Kontzentrazioa**. Solastiarrek antolatuta
14:30 Valle de Ayala hotelean **HERRI BAZKARIA ETA DANTZA** (Izena ematea martxoak 5 baino lehen. harremanetarako Dari, Tfnoa. 94 40 38 245. Bazkideek 31 eruo eta bazkide ez direnek 33 euro sartu beharko dituzte 3035 0045 25 0451125543 kontu korrantean) Solastiarrek antolatuta.

Martxoak 9 martizena:

18:30 Gastronomía Museoan Jatorri ezberdinetako eta Laudio emakumeak **elkarrekin egoteko gunea** (Ekuador, Kolonbia, Uruguay, Sahara...). KLOWNCLUSIONES: VIRGINIA IMAZ. Caritasek antolatuta

Martxoak 11, eguna:

18:30 Gastronomía museoan **MUSIKA KLASIKOA:** Kon-

tzertu didaktikoa arpa + flauta.

Martxoak 12, barikua

19:00 Lan Heziketako Udal ikastetxean **Antzerkia Mujeres Virtuosas** Adin guztientzako "Mujeres virtuosas" elkartearen partaide guztiak egunik onena lortzen saiatzen dira, urtero bezala; aukera hau partaide berriak onartzeko erabiltzen da... HAMAIIKA TEATRO.

Martxoak 13, zapatua

17:30 eta 20:00etan Lan Heziketako udal ikastetxean **"Séraphine"**. **Martín Provosten filma.** Seraphine de Senlis margolari galiarraren biografia xume honek Séraphine de Senlisen bizitza kontatzen du. Emakumea 1864an jaioakoa, artzaina, etxeko andre eta margolaria izan zen zoratu baino zertxobait lehenago.

Laudio Top Zinema Emakumearen Nazioarteko Eguneko beste eragile bat

Beste urte batez, Laudio Top Zinema ekimenak Emakumearen Nazioarteko Egunarekin bat egingo du, kalitate handiko "Seraphine" filmaren proiektioarekin. Hala eta guztiz ere, Lan Heziketako Udal Ikastetxera astebururo hurbiltzen direnei bestelako gutuzia batzuk eskainiko dizkie, oso diru gutxiren truke, Zazpigarren Arteaz behar bezala gozatu dezaten: horren adibide garbia da berriki Goya saria jaso duen "Yo también" filma ... anima zaitezte eta gozatu zine onenaz!

- Otsailak 27 **YO, TAMBIÉN** 17:30 eta 20:00. LHUlan 2€+ 7 urte
- Martxoak 6 **DISTRITO 9** 17:30 eta 20:00. LHUlan 2€+ 13 urte
- Martxoak 13 **SERAPHINE** 17:30 eta 20:00. LHUlan 1€+ 7 urte.

Udal akordioak

- 2010eko San Roke Musika elkartearen musika emanaldien zerbitzua: 80.570 euro (BEZ barne)
- Droga menpekotasunen prebentzio bulegoko hiru programen gastua finantziaztea: 11.952,09 euro (BEZ barne)
- San Joan errekarren egokitzapen hidraulikoa eta ingurumena berreskuratzeko proiektua: 1.905.957,91 euro (BEZ barne)

Helduentzako istorioak berriz ere Lamuzako liburutegira bueltatuko dira

Solastiar eta Lamuzako liburutegiak Helduentzako istorioen eskaintza berri bat luzatuko die, martxoaren 2an udal liburutegira hurbiltzen diren guztiak. Kasu honetan, Virginia Imaz antzerkigileak "Umbrales" deituriko lana eskainiko die bertaraten direnei. Sarrera libre eta doakoa.



Séraphine

MARTXOKO AGENDA

Otsailak 28:

- 20:00:Kontzertua Kepa Deuna Parrokian

Otsailak 27 eta 28:

- Andaluziaren eguna dela eta jaia Andaluziar etxean

Martxoak 13:

- Kirikiñorekin izotz pistara

Martxoak 2:

- 17:00: Helduentzako istorioak Lamuzako liburutegian

Martxoak 6 eta 7:

- Okasioen feria (Ikus 2. orria)

Otsailak 27 eta martxoak 6 eta 13:

- 17:30 eta 20:00: Audio Top Zinema LHULan

IKUS 1 ORRIA:

- Emakumearen Nazioarteko Eguna

IKUS 2 ORRIA:

- Fruitarbolei buruzko hitzaldia
- Goikoganeren irteerak

IKUS 3 ORRIA:

- Interneti buruzko hitzaldiak
- Hirugarren pintxo lehiaketa

IKUS 4 ORRIA:

- Tarotari buruzko ikastaroa
- Hirugarren adinekoentzako ikasgelak
- Erretzeari uzteko ikastaroa

ETA GOGOAN IZAN...
www.laudiokoudala.net
 web gunean are informazio gehiago

1939an jaiotakoak ilusioa barra- barra trukatzeko prest

Garai bateko istorio dibertigarriak birgogoratzeko eta poztasunez etorkizunari begiratzeko 1939an jaiotakoak eta euren bikotekideek bilgunea antolatuko dute martxoaren 27an. Besteak beste honako hauek parte hartuko dute: 12:00etan Meza santua Kepa Deuna parrokian 14:00etan Bazkaria Galiziar Etxeko jatetxean Bertan parte hartu nahi duten guztien 31 euro sartu beharko dituzte Vital Kutxako honako kontu korrontean martxoaren 18an baino lehen: 2097 0264 84 0106135862.

Laudio eta Aiara Eskualdeko fruitarbol lokalak berreskuratzeari buruzko hitzaldia

Laudioko Udaleko Heziketa, Enplegu, Merkataritza eta Nekazal sustapenerako arloak, martxoaren 17an, arratsaldeko 19:00etan eta balio anizdun aretoan Euskal Herriko Hazien Sareak antolatutako hitzaldia antolatuko du gure inguruan, Aiara eskualdean diren fruitarbolak berreskurapenerako ekimena ezagutzera emateko asmoz. Ekimen horren barruan zenbait zuhaitzez osatutako zoroak bisitatuko dira, zuhaitz horiek hobeto ezagutzeko eta etorkizunean negutegietan fruitarbol hauek ugartu eta hazteko.

Okasioen feriarene seigarren edizioa martxoaren 6an eta 7an

Martxoaren 6an eta 7an, Apiliek, audioar Udalaren laguntzaz, Lau-dioko Beherapen eta okasioen seigarren feria antolatuko du. Bertara hurbiltzen diren guztiek, bizi dugun krisi egoeratan hain preziatuak diren okasioak erosteko aukera izango dute, oso diru gutxiren truke gainera eta produktuen kalitatea mantenduz. Seigarren edizio honetan parte hartuko duten dendak honako hauek izango dira: Caminos s Outlet, Can-Can, Gloss, Selene, tximeleta Calzados Antxaber, Calzados Sever, La Piel, Mercería-Len-

ceria Elo, Nobuck Kukuma, txikis eta Luyando ópticos. Kontuan hartu beharreko datuak: • Lekua: Ayala kantzeliariaren institutuko eremu estalia. • Ordutegia: Larunbatean 10.00etatik 20.00etara eta igandean 10.30etatik 15.00etara eta 16.30etatik 20.00etara bitartean. • Beste ekimen batzuk: Estalita-ko eremuan haurrentzako parkea (eguraldia lagun) Biltzen den diruarekin 2000 eurotako bono bat egin eta bertaratzten diren guztien artean zozketatuko da. Zozketa martxoaren

7an egingo da notario baten aurrean, aipatutako tokian eta arratsaldeko 19.00etan. (Apilren sal-tokian) Helduentzako sarreraren salneurria: euro 1; 1 urte baino gazteagoek sarrera doan izango dute. 2000 eurotako bonoaren irabazleak martxoaren 11n gastatu beharko du diru guzti hori, audioar denda eta zerbitzuen artean. Denda bakoitzeko 100 euro gastatu ahal izango ditu. Promozio honekin, feriarra hurbiltzen diren guztiek saria irabaz dezateneko xedea lortu nahi da.

GR1 bidearen arabar ibilbideak, txango erakargarri baten eskaintza luzearen lehen urratsa izango da

Datorren otsailaren 28an, Goikogane mendi taldeak ikasturte honetarako programatutako zazpi-garren mendi marxa antolatuko du. Ibilbidea GR-1eko zati bat da eta 9 kilometroko luzera izango du- malda eta guzti. Ibilbide honetakoak dira Antoñana, Bujanda eta San Román de Campezo herriak. GR-1 penintsularen iparraldea zeharkatzen du Ampuriasen hasi eta Finisterren bukatzeko. Beste-

ak beste Katalunia, Aragoi, Euskal Herria, Errioxa, Gaztela Leon, Kantabria, Asturias eta Galizia igaroko ditu. Urtarrilean hasiko den arabar ibilbidean, iraganean garrantzitsuak izan ziren herriak ezagutuko dira. Gaztelu zaharrak, hesitutako uriak, monasterioak, etxe dorreak ... guztiek ere makina bat informazio luzatuko die parte hartzaileei. GR-1 egitasmoak ere interes natural izugarria du. Zapalduko di-

ren bide zaharrak, paraje berde bikainak eskainiko ditu. Eta Goikogane mendi taldeak eskaintzen duen beste ibilbide bat, beti ere gure udalerriko ikasleei zuzenduta, martxoaren 13an Errespalditzatik aterako den irteera da; besteak beste Aiara eskualdeko parajeak ikusteko aukera eskainiko duen txangoa izango da hau. Informazio gehiagorako: www.goikogane.com



Zaborrak biltzeko eta estolda zerbitzuagatikotasak ordaintzeko epea zabalik jada

Laudioko Udalak 2009ko urteko, Audio udalerriko Zaborrak Bildu eta Ezabatzeko Zerbitzua Prestatze-Tasa Padroia eta Estolda Zerbitzua Prestatzeagatikotasaren Kontribuzio Padroia onartu ditu. Tasa hau ordainketa epea, borondatezko aldiari, 2010ko otsailaren 8 egunetik apirilaren 8 egunera ar-

te, biak barne, izango da. Helbideratuta dauden errezibuak 2010ko martxoaren 8an kobratuko dira. Eta gogoan izan, www.laudiokoudala.net web gunean "Nire ordainketa" atalean internet bidezko ordainketak ere egin ahal izango dituzuela, bertan agertzen diren oinarriak segituz gero.

Zerga honen ordainketa helbideratuta ez dutenek, ordaindu ahal izango dute Vital Kutxa eta Euskadiko Kutxaren bulegoetan, Kutxatik bidalitako ordain-agiri bakarra aurkeztuz. Erreziburik ez bada jaso errezibuaren ale bikoiztua Herriko Etxeko Herritarren Arreta Zerbitzuan.

GAZTE INFORMAZIO GUNEA "LAMUZA"

LAMUZA 13 KALEA

infogazte@laudiokoudala.net

ORDUTEGIA: Astelehen, asteazken eta ostiraletan 16:30etatik 19:30etara

Agiri desberdinak bertan egiteko aukera jarraia



Odola ematen segitzeko eta bizitza emateko aukera berriak gure udalerrian

Berriz ere zuen laguntza eskatu nahi dugu, zuen elkartasuna erregutzeko eta lagun hurkoari laguntzen segitu dezagun. Gure udalerrian odol emateak inoiz baino gehiago izan daitezela nahi dugu, batez ere gure aldamenean dugun horrek gure laguntza behar duelako eta gure izen ona lau haizeetara zabaltzeko. Gogoan izan eza zue odol emateak etxetik gertu egiteko aukera izango duzuela, beti ere 16:30etatik 20:00etara eta leku hauetara gerturatuz:

La Milagrosa ikastetxea: **Martxoak 3 eta 10**
Osasun Zentroa: **Martxoak 4, 8, 11 eta 15**
Aretako Nagusien Zentroa: **Martxoak 9**
Gaztela Leon Zentroa: **Martxoak 22**

Nerabeek internet eta bideo jolasak osasuntsu eta segurtasunez erabil dezatenerako ikastaroa

Martxoaren 2an, 9an eta 16an, arratsaldeko 18:30etatik 20:30etara, Herriko plazan kokatutako balio anizdun aretoan gurasoei eta hezkuntza sistemarekin erlazioatutako pertsonen zuzendutako ikastaroak martxan jarriko dira, bertan gai hauek jorratuko direlarik:

- **Martxoak 2:** Bideo jolasak: Erabilera osasuntsu eta hezigarria
- **Martxoak 9:** Sarearen eta ciberbullingaren Alberdi legalak (sarearen beharrezko indarkeria)
- **Martxoak 16:** Internet behar bezala eta arduratsu erabiltzeko aholkuak

Gai honetan adituak diren pertsonak ikastaro hauek txosten emaleak izango dira eta sesio bakoitzaren azken momentuan, parte hartzaileen zalantzak argitzen saiatuko dira. **Laudioko Udaleko Gazteria sailak eta Pantallas Amigas** elkarrekin antolatutako ikastaroak dira hauek. Informazio gehiago: 94 403 48 50

Izkutuko zientziaren sekretuak ezagutzeko aukera paregabea

Aurreko batean jakinarazi genizuen bezala, **laudiar Udaleko Gazteria sailak** berriz ere martxan jarri nahi izan du gazteei zuzendurako tarot, kiromantzia eta numerologiari buruzko ikastaroa. Oraingo honetan 17 eta 29 urte bitarteko gazteei zuzenduta egongo da eta hitzordua toki eta ordu hauetan: **laudiar Kultura Etxean**, arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara martxoaren 5ean, 12an, 18an eta 26an. Izen emateak: 94-403 48 50
Plaza kopuru mugatua



Martxoaren 19an, 20an eta 21ean, **Laudioko Hirugarren Pintxo Lehiaketa** antolatuko da. Egun hauetan zehar euro baten truke pintxo bat probatzeko aukera

izango dute herritarrek beti ere honako ordu-tegian: 12:30etatik 15:30etara eta 19:00etatik 21:00etara (domekan goizez bakarrik). Eta aurten bi kategoria bakarrik izango dira: Etxeko pintxo berezia eta pintxo berritzailea. Aurreko urtean bezala, bertan parte hartzen duten ostalaritza establezimenduek egindako mokaduei balorapen teknikoak egingo die, bost adituz osatutako epaimahaiak; horrez gain herri bozketa ere egingo da, eta du da gabe horixe izango da lehiaketa honetako oinarria. Herri bozketa parte hartzen duten herritarrek ere saria eskuratzeko aukera izango dute aurten ere. Herritarrok hurrengo Zuin aldizkarian, udal web orrialdean edo

parte hartzen duten tabernetan aurkituko dituzuen kupoiak erabilita zuen botoa emateko aukera izango duzue. Horretarako pintxoak dastatu eta bost establezimendu desberdinetako zigiluak beharko dituzue (ostalari bakoitzak zigilu bana izango du). Bost zigiluak dituzuean, lehiaketarako buzoietan sartu ahal izango duzue. Baina lehiaketa honetan banatuko diren sarietako bat lortu nahi izatekotan, herrigunetan ez dauden tabernetako baten zigilua beharko duzue. (botoa emateko: parte hartzen duten edozein parte hartzailearen bost zigilu, herriguneko edo kanpokoa; saria lortzeko: herrigunetik kanpora dauden parte hartzailearen baten zigilua). Beste laguntzaile batzuk: **Laudioko Udala**, Arabako foru Aldundia, Nafarroako Ipar Kutxa, Deia, Apil, eta Aiaratur. Lehiaketaren inguruko informazio gehiago **Laudioko Udalaren web orrialdean** topatuko duzue: www.laudiokoudala.net.

Erretzeari uzteko ikastaroa berriz martxan

Martxoaren 22an erretzeari uzteko ikastaroaren edizio berri bat martxan jarriko da, aurrekoetan bezala, **laudiar Udaleko Drogomenpekotasunaren aurkako bulegoak** bultzatuta.

Tratamenduak zortzi sesioa iraungo ditu, asteazkenero. Bertako zuzendari **Vicente Fernandez, SASOIA** mediku psikologo taldearen arduraduna izango da. Tratamendu farmakologiko edo eta psikologoak pertsona bakoitzarentzako desberdina izango da. Zuk ere bertan parte har dezazun aurreko urteetako arrakastaren berri emango dizugu: Parte hartzaileen %60 erretzeari utzi zion eta gainontzeko %40 zertxobait gutxiago kontsumitzea lortu zuen. Horretarako erabilitako metodoa, kontsumoa gutxitzekoa izan zen, %20k botikak behar izan zituzten eta %10 txikile eta nikotina partxeak behar izan zituzten. Ikastaroa martxoaren 22ko 18:30etan hasiko da, balio anitzeko aretoan.

Izena emateko nahikoa izango da, izena eta telefono zenbaki bat ematea **Udaleko Ongizate arloan**, (944034840 telefonoan). Honen ostean lehen sesioan parte hartzea beharrezkoa izango da.



Hirugarren adinekoentzako ikasgelak ague esango digute Nafarroarako txango batekin

2010eko Hirugarren Adinekoentzako ikasgelak itxi egingo zaizkigu martxoan eta horretarako inoiz baino ekimen gehiago eskainiko ditu, beti ere kultura, musika eta txangoak bitartean direlarik. Txangoa izango da, hain zuzen ere aurtengo ekimenetako azkena eta horrexegatik parte har dezazuen eskatzen dizuegu, Nafarroan behar bezala ezagutzeko aukera paregabea baita.

1, ASTELEHENA

17:00etan: Hitzaldia: "LA CIUDAD, espejo de Historia y Arte". **SUSANA ARECHAGA**. Artearen historian adituaren eskutik

3, EGUAZTENA

17:00etan: Hitzaldia: "A propósito de la Gripe A" Fisiologian adi-

tua den **JOSÉ ACRLOS PÉREZ COBO** irakaslearen eskutik

5, BARIKUA

17.30 etan kontzertua: "CANCIONES Y EMOCIONES" Amurrioko antzokian egingo da ekimen hau eta bertan aiaraldeko nagusiek ere parte hartuko dute.

8, ASTELEHENA:

17:00etan: Hitzaldia: "La importancia de la inteligencia emocional" **OSCAR LÁZAR**. Psikologo klinikoaren eskutik

10, EGUAZTENA:

17:00etan: Hitzaldia "EL MUNDIALMENTE FAMOSO TRIO CALAVERAS" **SATURNINO SAEZ DE IBARRA**. Ikertzailearen eskutik

12, BARIKUA

17:00etan: Hitzaldia: "Tradiciones y creencias en el mundo árabe" Arabiar kulturaren aditua den **AHMED CHAGHOUAOUI** UPVko irakaslearen eskutik

15, ASTELEHENA:

17:00etan: Hitzaldia: "Medidas de estímulo y reformas estratégicas para salir de la crisis" **SALVADOR ARANA** ekonomistaren eskutik

17, EGUAZTENA:

txangoa: "Artaxona (Nafarroa): cercano y bonito" Explicaciones: Bidai osoa behar bezala azaltzeko Víctor Peñas historiagileak gidari lanak egingo ditu. Prezio eta orduak oraindik ere zehaztu gabe daude